

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

626. zkia.
XV. urtea
2007ko irailaren 14a

Elgoibartarrak oporretan

India, hain urrun eta hain desberdin

2007/2008 EUSKARA IKASTAROAK

Euskalduntze maila guztiak. Alfabetatzea. EGA. Hizkuntza Eskakizunak.

IRAUPENA
Iraila-ekaina

IKASTARO BEREZIAK

Gurasoak, Enpresak, EGA ikastaroa lanuntzeran, Mintzapraktika, Hizkuntza Eskakizunak (Osakidetzak, Administrazioa, Hezkuntza) AISA (etorkinrentzako ikastaroak), Ostalaritza, Dendaketan.

AUTOIKASKUNTZA
BOGA (On-line)

HABEren 1.go eta 2. mailako azterketak euskaltegian bertan.

16 urtetik gorakoentzat.
Diru-laguntzak. Galde ezazu!

MATRIKULALDIA
Irailaren 3tik 28ra

Egizu euskaraz!

nahi baduzu...
egingo duzu

¡Comunicate en euskera!

si quieres...
puedes



UDAL
EUSKALTEGIAK

DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea
Nafarroa Eparantza 2 · ELGOIBAR
Tel.: 943 74 27 31 · Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

26 urte euskara irakasten. Todos los niveles. 43 zentro. HABELko diplomak. Horarios personalizados. Bekak...

matrikula
zabalik


www.udaleuskaltegiak.net

matrikula
abiarta

Neurri
bereziak
eta
ospakizunetarako
arropak.




Eskolara itzulera
umeentzako eskaintza bereziak irailan



M4A

2007-2008
Udazkena
eta Negua

Emakume, gizon eta
haur erropak



Julio Urkijo, 24 · AZKOITIA · Tel.: 943 85 07 36



UXUE ALBERDI

Iritsi gara zozoek beleen zorigaitzarekin kontsolatzen diren hilabetera: "Zer, hi ere lanera?". Aldaketa posibleen hilabetea omen da iraila, urtarila bezala. Ingelesa ikasten hasteko, erretzeari uzteko, kirolari bihurtzeko garai aproposa. Ondo dakite faszikulu-saltzaileek gure aldaketa-impulsoen kronologiaren berri: erosi hiztegia tomoka, osatu panpin-etxea aleka... Azken alera iritsi den inor ezagutzen ez dugun arren.

Badira munduan sekula erabakirik hartu ez duten pertsonak, badira erabakiak analisi luzeen ostean hartzen dituztenak, eta badira, bagara, inpultsoka, kolpeka, braustaka hartzen ditugunak. Nik, esaterako, lana utzi eta eleberri bat idaztea erabaki dut; Bilbo utzi eta Getariara bizitzera etortzea; 9 hilabeteen ikusi ez dudana muti-larekin bizitzen jartzea; eta ilea mozteko gogoia izan eta astelehena denez, guraizeak hartu eta, kriski-kraska, neuk ebaki dut mototsa.

Segurtasun faltaren seinale izan daiteke, ezer egin ez izanaz damutzeko izua, akaso. Agian, aldaketak behar ditut oraindik bizi naizela sentitzeko; edo, nork daki, neure bizitza neuk gidatzen dudala pentsatu nahi dut. Gajoa ni.

Nolakoa zara zu? Ni ertzak probatzearen zalea naiz, uste baitut lagundu egiten digula guztiok garen erdipurdiko erdibide horretara iristen.

ZOZOAK BELEARI...



IMANOL LARRAÑAGA

«Agian aldaketak
behar ditut
oraindik bizi
naizela sentitzeko»

UXUE

«Erabakiek
mendiko motxilen
itxura daukate
nire kasuan»

IMANOL

Hori da geldu egon ezina, neska! Ni ur bareetako arraina naizela uste dut. Itsaso beltzak eta olatu handiek beldurra ematen didate. Gustatzen zaizkit ertzetik begira egoteko, baina kosta egiten zait ur handi eta ezezagunetara salto egitea. Igande gauetan, adibidez, Roge Blascoren *Levando Anclas* irratsaioa entzuten dudana bakoitzean, munduko bazterretan galduta dabil-tzan bidaiari eta abenturazaleen inbidia-tan egoten naiz iratiari pega-pega egin-da. Egunen batean horrelako eskapada-txoren bat egin behar dudala pentsatzen oheratzen naiz domekero; baina astelehen goizean esnatzen naizenean, hankak lurra-ri josita dauzkadala konturatzen naiz.

Erabakiek mendiko motxilen itxura daukate, nire kasuan. Txikitxoak erraz eta azkar hartzen ditut, baina handiei kolpe egitea kosta egiten zait. Orain arte txikiekin ondo moldatu naizelako izango da, behar bada. Baina, izan daiteke, baita ere, motxila handien barruan topatuko du-danaren beldur naizelako.

Kuriosoa da, Uxue. Txikia nintzenean erregaluri onenak pakete handietan zeto-zela pentsatzen nuen. Ez zitzazkidan bul-to txikiko opariak gustatzen. Eta orain, ber-ritz, munduak eskaintzen dizkigun aukera handiei papera kentzeak pereza ematen dit. Han eta hemen topatzen ditudan zo-rioren aleekin eta nire ingurukoek ematen didatenarekin, gustura eta pozik bizi naiz.



GIZAKIOK BENETAN ERAGINKORRA DEN ARMA BAKARRA DAUKAGU!

BARREA



Arthur Conan Doyle

Parte hartu, aldarrikatu, gozatu

Jaiak oroimenean galtzen hasiak zaizkigun erutinaren gurpil ero honetan, geldialdi bat egin eta atzera begiratzeko aprobetxatu nahi degu aukera hau. Malako jai batzordean, aurten ere, jai parte-hartzaileak bultzatzea genuen helburu, beti bezela jaiak, elkartzuna eta aldarrikapenak uzartuz.

Joan den urtean martxan jarritako ekimenei aurten ere berriak batu zaizkie, jaiak bera etengabe berrasmaturik eta biziberrituz: II. Patata tortila lehiaketa eta ginkana izan genituen ostiralean eta hauei batu zaizkie igandeko musaldia eta ostiraleko ordu txikitako karaoke arrakastatsua. Aurten ere edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko konpromisoari eutsi diogu, ez da aukerarik erosoena, baina naturarekin daukagun zorraren aurrean hitzetatik ekintzetara pasatzeko sasoi aspaldi heldu zitzaigun. Jendearen parte-hartzea handia izan da, bai kontzertuetan eta baita gainontzeko ekitaldietan ere. Musaldiko garaikurra Ondarru alde-ra joan bazitzaigun ere, herritarrek ondo erantzun zuten patata tortila lehiaketan, ginkanan zein karaokean. Azken honek aurrikuspen guztiak hautsi zituen. Datorren urtekoan pentsatze hutsak beldurra ematen du.

Azkenik auzotarrei sortzen dizkiegun traba eta arazoengatik barkamenak eskatzearekin batera eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen. Lehenik eta behin eskerrak zuei, Malako gunera hurbildu zaretzen guztiei. Gure eskerrik beroenak lanean jardun duzuen guztiei: antolaketan, montaketan, tumoak egiten, bazkarietan... Esker mila Elgoibarko musikariari (Ironfest, Napoka Iria...) zein kanpokoei: festa musikaririk gabe ez da festa. Eskerrak ekitaldi zein ekimenetan parte hartuz jaiak benetako jai bilakatzen dituzuen guztiei: dantzaldian izerditu zinetenak, bazkarietan asetu zaretanak, bertsolari, trikitilari zein musika jartzaileak, patata tortilla lehiaketakoak (sariarik jaso ez zutenak batez ere), muslariak, karaokeko urretxindorrek, ginkaneroak... Jai herrikoia goak, parte-hartzaile goak eta parte-kide goak lortze bidean lan asko daukagu egiteko, baina zuen laguntzarekin gertuago dauzkagu.

Biba zuek.

MALAKO JAI BATZORDEA

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaz:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxo: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitate: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTURAREN ERAGILEA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue, Zalao Arnaiz **KOLABORATZAILERAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osora, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 ISSN 1139-1855



KEXAK

• **Madalako errotonda aparkaleku bilakatuta dago:** "Gainontzeko herrietan debekatuta dago errotondetan aparkatzea, baina gure herrian libre dela dirudi. Madalako errotonda berria kotxez gainezka egoten da beti. Udan hiru astez egon dira kotxeak bertan, mugitu gabe eta askotan obretarako kamioia ezin izan da pasatu. San Lorentzora bidean dauden enpresetara joateko kamioiak ere hemendik pasatzen dira eta askotan errotonda gainera igo behar izaten dute, kotxeak traban egoten direlako. Umeak ikastolara joateko orduan bakarrik agertzen dira udaltzainak ingurune honetara, baina ez isunak jartzera. Zerbait gehiago egin beharko luketela iruditzen zait".



• **Tren geltokian ez dago arduradunik:** "Txartel makinak jarri dituztenetik tren geltokian ez da langilerik egoten. Norberak atera dezake bidai txartela, baina askotan makinak arazoak ematen ditu. Jende nagusi askok erabiltzen du trenea eta ez dakite makina erabiltzen, eta ez dago inor laguntzeko. Uda honetan arazo mordoan izan ditugu eta, gure ustez, estazioan arduradun bat jartzea beharrezkoa da".

• **Basarte auzoan ez dago zakarrontzirik:** "Herriko beste auzo batzuk bezala, Basarte handitzen ari da, jende asko bizi da bertan eta ez dago zakarrontzirik".



TXALOAK

• **Txalo bat Udalarai aurtengo San Bartolome jaietan barrakak herri barruan jartzeagatik:** "Lehenengo proba gaiinditu du Udal berriak, izan ere, aurtengo San Bartolomeetan barrakak eta txurreria herri barruan izan ditugu. Umeentzako askoz erosoagoa da eta herriari jai giroa ematen dio. Hemendik aurrera ere, herriarentzako eta herriarrentzako erabaki egokiak hartzen jarraituko duzuela espero dut".



• **Txalo handi bat brigadako langileei jaietan egiten duten lan guztiagatik:** "Oharkabean pasatzen da brigadako langileek San Bartolomeetan egiten duten lan guztia, eta benetan txalogarria da. Kontzertuetarako aukiak jarri, berriro Plaza Handia txukundu, goitibeheretarako barandilak, segurtasun neurriak... ekitaldi askotan egiten dute lan dena ondo atera dadin".

Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNOREN *Luma*

Zu bezalako haurrek lo egin dezaten

Egun asko etxetik kanpo, nekea, hankak kexu, bizkarra atsede-na hartu nahian... Baina nire aurpegian hala ere iribarrea. Uda, uda eta uda! Azterketak amaitu eta ametsen espedizioa. Inongo presarik gabe, lasai eta gustura. Iratzargailua? Zer da hori!

Baina denok dakigun modura, denak du bere amaiera. Batzutan geuk aukeratzen dugu noiz eta nola bukatuko diren gure istorioak. Beste batzuetan, ordea, konturatu gabe ate joka hasten dira. Zu zain egoten zara irudipena delakoan; uste duzu aldameneko etxeko tinbre hotsa dela. Baina ez! Azkenean, lo goxoan zegoena besaulkitik altxatu eta atea irekitzera joan behar izaten da. Oraingo honetan iraila zen ate joka zebilena.

Baina, orain, amets egingo dut. Umetako oroitzapenetara hegan egin eta lo goxoan murgilduko naiz. Garai haietan, irailak ez zekarren horrenbesteko hotza eta ikararik; urduritasun goxo bat bai-zik. Gauero, lo hartu aurretik amak abesti bat kantatzen zidan. Begiak itxi eta ametsak bakarrik pausatzen ziren nire barrenean. Gaur horixe nahi dut: bihar lehenengoz ikastolara joatea, buruhausterik gabe. Ohearen aldamenean ama dago, iluntasunean. Esku batez begiak laztantzen dizkit lasai lo har dezadan eta garelako isiltasunean abesti goxo bat entzun dezaket bere ahotsean: "Zu bezalako haurrek lo egin dezaten, ilargia hasi da zerrua pintatzen. Txoriak lotan daude, hagjit da berandu, ilargiak erreka erdia edan du."

Maialen Olazabal

[ZORTZIKO TXIKIAN]

MARIJO-IZASKUN ESTIBARITZ



PITXINTXU
LIBURU
DENDAKOAK

• **Testu-liburu asko urte bate-tik bestera aldatzen dituzte?**
Urte gutxitan aldateta handiak izan dira, baina bada lau-sei urtez saltzen dagoenik.

• **10-12 urteko neska-mutilek zenbat testu-liburu izaten dituzte?**

Sei inguru, kopurua eskolaren arabera aldatzen da.

• **Testu-liburuak eskuratzeko sistema legez aldatu dute.**

Eskola publikoko 1. eta 2. mailetako liburuen zati bat Jaurlaritzak ordainduko du. Gero bueltatu egin beharko dituzte.

• **Teknologia berriekin gutxiago irakurtzen dugu?**

Liburua liburua da beti. Salmenta ez da jaitsi.

• **Jendeak zer irakurtzen du gehien?**

Nobela historikoa oso modan dago. Bestela beti daude bospasei liburu pil-pilean.

• **Opari ona da liburua?**

Guretat bai, baina hemengo beste hainbat gauza baino zailago saltzen da batzuetan.

• **Zer behar da opari bat ondo aholkatzeko?**

Psikologia. Eta errespetua: batzuk ez dute nahi guk traba egiterik eta beste batzuk gure aholkuak behar dituzte.

• **Opariak emakumeek erosten dituzte gehienbat?**

Gure kasuan bai. Baina hori aldatzen ari da.



[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE ZUBIZARRETA

1924an jaioa

«Parrandak»

Parrandan ibiltzeko diru pixkat bihar da. Lehengo parrandak diferentia ziran. San Lorentzon erromerixia izaten zan, Kurutzetan ere bai: hara juten giñan dantzan egittera. Neskatan ez bagenduan egitten, tabemara juten giñan txikito bat hartzera. Neskalguntzan ere ibiltzen giñan.

Andramari egunian jun giñan Pol-poleko erromerixara. Eta handik ixa Osintxuraino, neskalaguntzera. Gero Plaentxira, han ere jaixak. Gero, buel-

tan Elgoibarrera eta han beste lagun bat topau naban, haura ere neskalguntzan. Etxera jun, erropak aldatu, eta kalera berriz, San Roke eguna zan, eta han ere jaixak! Tailarrera jun bihar nitzan lanera, inork ez zidan igerri nun ibili nitzan gabian, eta indarrik ez zauanez, ezin lanik egin. San Rokera jun giñan, arbolape baten lo egin naban eta hantxe pasau naban eguna.

Holakuak gitxi egitten ziran, baiña banaka batzuk bai.



[GURE BERBAK]

Morfologia (1): NOR eta NORK

Morfologiari helduko diogu opor osteko astelehen luze honetan, irail honetan. Izena nola jokatzen dan ikusiko dogu: zein diran deklinabideko kasu-markak, eta zer forma eta zer erabillera daukan hórretako bakoitzak. Hasteko, NOR eta NORK kasuak izango ditugu hizpide, absolutiboa eta ergatiboa, bestela esanda. Hamen nabarmenena da ergatibo pluralak -AK formia hartzen dabela, eta ez euskara batuan ezagutzen dugun -EK hori. Hori dala ta, forma bera debe eta nahastu egin leikez NOR plurala, NORK singularra eta NORK plurala, guztiak -AK markia dauke eta.

Eibarko gizonak etorri dira. (NOR plurala)

Eibarko gizonak egin dau etxia. (NORK singularra)

Eibarko gizonak egin debe etxia. (NORK plurala)

Zein kasuri buruz ari geran aditzak esango digu, desberdina izango da bakoitzian eta. Testuinguru batzuetan, hala ere, aditzik ez dogu eukiko, edo jokatugabia eukiko dogu; halako kasuetan, idatzixan ezin izango dogu bereizketarik egin, baiña bai ahozko hizkuntzan: azentuak balixoko digu Elgoibarren bata eta bestia bereizteko.

Eibarko gizonak egindako etxia (NORK singularra)

Eibarko gizonak egindako etxia (NORK plurala)

Lehenak O bokalaren gaiñian dau azentua, eta bigarrenak I-ren gaiñian.

Jesus Mari Makazaga



Tel: 943 74 10 11

- ☺ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ☺ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ☺ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

ELGOIBARTARRAK OPORRETAN

ESTATU BATUAK ETA INDIA, BI MUNDU

New York eta Las Vegas batetik. India bestetik. Bi mundu, erabat desberdinak. Hala ere, bietan hainbat kontraste egon arren, uda honetan Estatu Batuetan oporretan izan diren elgoibartarrak hango luxu eta estresarekin ikararuta etorri dira. Indian egon direnak, berriz, hango miseria eta espiritualitatearekin.

Manu Lejarazu eta Joseba Trueba Kroaziara joan behar zuten oporretan, baina azkenean Estatu Batuetara joan ziren. Sei egun egin zituzten New Yorken. Bisitatzeko oso hiri polita dela azaldu du Manuk. "Harrituta uzten zaitu. Benetakoa altueren dimentsioa galdu egiten duzu", dio.

"Egunean zortzi milioi pertsona sartzen dira Manhattanen. Erabat estresantea da. Puntako orduetan, eurak lanera doazenean kalera irtenez gero, euren moduan ibiltzen zarela konturatzen zara. Zitzu bizian!!! Gaienetik pasatzen zaizkizu. Gure aurrean neska bat jausi zen eta inork ez zion kasurik egiten, jendea gainetik pasatzen zitzaion eta geuk deitu egin behar izan genion Poliziarri".

New York kontrastez beteriko hiria dela frogatu dute. Baina den-dena ez da fil-

metan bezala. "Taxi bakarra ere ez dugu hartu. 40.000 taxi claudela uste dut. Egun guztian ikusten dituzu. Filmetan eskua jaso eta gelditu egiten dira, baina ez da horrela. Filmea amaitu eta oraindik ez zenuke taxirik hartuko...".

New York ikaratzekoa bada, Las Vegasen tonto aurpegia jartzen zaizula uste du Manuk. Batez ere han dagoen luxuarengatik. Beste lau egun egin zituzten han. "Kontatzen dizutena kontatzen dizutela, aluzinatuta amaitzen duzu. Ez duzu imaginatzen hori guztia zer den. Flipatuta daude".

"Las Vegas basamortu erdian aire egokituz eraikitako hiria dela esan daiteke", dio Manuk. "Hotelak elkarrekin komunikatuta daude. Bost mila lagunentzako hotelak dira. Jendea etengabe pasatzen da handik. Hoteletan galdu egiten zara".

Gai baten ingurukoak izan ohi dira hotelak: Parisi buruzkoan Eiffel dorrearen Garaipen Arkuaren edo hango kaleen erreplikak daude. Beste batean, Venezia: gondolero eta guzti. "Egun pare batean ezin dira hotel guztiak bisitatu". Edozer gauza aurki daiteke hoteletan. Denda guztiz garestiak ere aurki daitezke, goi mailako firmen luxuzko gaiak saltzen dituztenak.

"Casinoetan goizeko bederatziretan jokoan dabilenik ere ikusten da. Makinetan, dado-jokoetan, pockerrean, erruletan... Hogeita lau orduak zabalik. Edozein lekutan gasta daiteke dolarren bat", dio. "Hara doan edonork gastatzen ditu 100 dolar", eta ia inori ez omen zaio ezer tokatzen. Han egonda, suertea probatzea beharrezkoa zen, baina ezer ez. "Bost minutu eta kalera. Kristoren tonto aurpegia".

«Las Vegasen goizeko bederatzietan jokoan dabilenik ere ikusten da. Edozein lekutan gasta daiteke dolarren bat»



SEI LAGUN INDIAN

Idurre Ramos, Itziar Loiola, Mireia Etxeberria, Jon Bastida, Jon Astigarraga eta Jon Gastecain elgoibartarrek Indiara egindako bidaia oso bestelakoa izan zen. "Mendi handiak ezagutzeko eta turismo apur bat egiteko aukera ematen zigun Indiak". Iritsi eta zuzenean iparraldera joan ziren, Garwalgo Himalayara, sei-zazpi milako mendiak dauden ingurura.

Baina oporaldia eta Monzoi sasoi batera etorrita, mendian suerte handirik ez zuten izan. "Gangesko bailaratik igo ginen, hasten den tokira". Toki berezi eta mistikoa da, erromes pila bat aurkitu zituzten bidean. "Handik gora igo ginen Tapoban deitzen den toki batera eta egon ginen han lau egun edo. Hartu genuen han gida, zamaketariak eta dena. Kanpina montatu, eguraldi txarra hasi zen eta lau egunetan han geldi, ezer ikusi gabe. Hori izan zen gure mendiko esperientzia".

Gero ere, menditik jaitsi eta India iparraldeko beste bazter batzuk ezagutu zituztenean, hango errealitatea zein desberdina den ikusi zuten: pobrezia, higieni urria, kalean makina bat behi zaborrak jaten... Gainera, kilometro gutxi egiteko denbora mordo behar da, ibilgailu eta errepedeen baldintza eskasak direla eta.

Haridwarrera heltzean, Shiba jaialdia burutzen ari ziren. Mendiko erromes guz-




Indiako errealitatea zein desberdina den ikusi dute

tiak han ziren, laranjaz jantzita, garbikunde ospatzen. Han ez zegoen beste turistarik eta bertakoek ez zituzten elgoibartarrak bakean lagatzen, batez ere neskak.

Taj Mahal ere ezagutu zuten. Aurrerantzean oporrek beste maila bat hartuko zuten, leku erosoagoetan izan zirelako. Gehienbat mendiko erropa eraman zuten, ordurako behar zuten beste erroparen bat eskuratzea. Erosketak egin zituzten.

"Hemen oso ondo bizi gara". Ia hila beteko oporetatik ekarritako ondorioa izan liteke. Egonaldiari buruzko errekuerto ona ekarri dute, nahiz eta hasierako plan guztiak ez bete. Horrexegatik, hain zuzen, ez dute mendi aldera bueltatzeko gogoia kendu.



[PROTAGONISTA]



Estanis Osinalde

Minbiziaz luzaroan gaixo egon ondoren, 49 urte zituela, hil zen Estanis Osinalde irailaren 7an. 85-86 ikasturtean iritsi zen Estanis Elgoibarko LH Institutura Tailer Maisu aritzeko. 1986an ikasketa buru izendatu zuten eta 1990ean ikasketekiko zuzendari lanetan hasi zen. Hiru urtez bete zuen kargua eta 93tik 2001era IMHko Metal Departamentuan eta Deustuko Berritzegunean aritu zen lanean. Azken urteotan LH Institutuko lanetan eszedentzia hartuta zegoen politika jarduera garatu ahal izateko. 2003. urteik Mutrikuko alkatea zen.

[NOTIZIA]

Elgoibarren zazpi lapurreta egin zituen ustezko lapurra atxilotu dute

Otsaila eta uztaila bitartean Elgoibarko bost etxe eta bi bulegotan lapurretak egin zituen ustezko lapurra, atxilotu zuen Ertzaintzak abuztu erdialdean. Barakaldoko bizilagun bat da eta, dirudienez, horiek ez dira gizon horrek eginiko estreinako lapurretak izan, aurrez ere hainbat salaketa baititu Bilbon eta inguruetan. Atxiloketa horri esker, ostutako hainbat gauza berreskuratu ahal izan dituzte jabeek.

Beste atxiloketa bat

Irailaren 4an, bestalde, ustezko droga trafikatzailer bat atxilotu zuen Guardia Zibila Elgoibarren. Gobernuaren Ordezkaritzak jakinarazi duenez, IAL, 31 urteko Barakaldoko gizasemea, 620 dosi egiteko



adina droga eta dosiok egin eta banatu ahal izateko tresneriarekin harrapatu zuen Guardia Zibila. Sorluzen eta Eibarren ere atxilotu dituzte ustezko beste bi droga trafikatzailer. Hiru operazio horietan merkaturatzeko prest zeuden 5.720 dosi atzeman ditu Guardia Zibila.

[ZENBAKIA]

200

"Escape" taldeak antolatuta Motorren I. Topaketa izan zen irailaren 2an, eta 200 motorista elkartuz Plaza Handian. Hamaitakoa egin ondoren motorrean egin zuten irteera inguruko herrietan zehar eta eguerdian bazkaria egin zuten Sigman. Herritar asko gerturatu zen topaketa hori ikustera.

asteko [ARGAZKIA]



Gazte Asanbladako eskutik umeentzako zirko ikastaroa izan genuen joan zen zapatuan. Etxeko artista txikiak izan ziren protagonistak Madalako parkean. Malabareak, gurpil bakarreko bizikletak eta beste hainbat motatako trikimailuak erabiltzen ikasi zuten herriko umeek. Abilezia handiko artista txikiak akrobazia bikainak egin zituzten umore eta barre algaratean. Batzuk hobeto eta besteak okerrago, baina seguru gaude denek primeran pasatu zutela zapatu goiza. Etorkizun handiko akrobatikak ditugu Elgoibarren.

Elgoibartarren %43,6k hitz egiten dute euskaraz herriko kaleetan



Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak ekainaren 4tik 10era egindako kale-neurketaren arabera, elgoibartarren % 43,6k berba egiten dute euskaraz gure herriko kaleetan. Azterketa hori egin ahal izateko, 8.232 elgoibartarren hizkuntza jokoera neurtu da. Azpimarratzekoa da elgoibartarren euskararen erabilera 2003. urtetik aurrera beherantz egin duela pixkanaka-pixkanaka (%44,7-%41,4-%40,9-%39,7), baina aurtengoak berriro ere gorantz egin du apur bat eta %43,6ko kopurua 2003 urtekora hurbildu da.

Haurrak euskara gehien

Adinaren arabera datuak kontuan hartuz, inguruko herrietan bezalaxe, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 63,8). Helduak eta adinekoak dira, bestalde, euskara gutxien egiten dutenak (%35,6). Giro ezberdinei dagokienez, jolaslekuetan (%54,1) erabiltzen da euskara gehien. Aurten txikiteoan emandako igoera, (%34tik %41,6ra) azpimarratzekoa izan da.

Datu hauei buruzko informazio zabalagoa www.elgoibarren.net helbidean aurki dezakezue.

[MOTZ-MOTZIAN]

Miski Elkartearen zozketa

Miski Elkartek hogeiki bikoterentzako afariak zozketatu ditu herriko jatetxe eta tabernekin elkarlanean: 2.943, 3.750, 0025, 2.737, 2.503, 0737, 0803, 1.308, 0778, 5.035, 0965, 2.536, 1.376, 4.024, 4.552, 4.533, 2.765, 3.250 eta 4.015.

1947an jaiotako bazkaria

Irailaren 29an bazkaria egingo dute 1947an jaiotakoek. Interesatuak 60 euro sartu beharko dituzte irailaren 24rako. Kutxa: 2101 0036 62 0126062694 edo Euskadiko Kutxa: 3035 0007 21 0071040374

Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko bi erosketa-txeke banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Isabel Barutia eta Begoña Elordi izan dira irabazleak. Saria Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.



Sallobenteko zozketa

Sallobente elkarteak zozketatuako errifaren saria Donostia aldera joan da. 13.612 zenbakiarekin Naroa Urreztarazu izan da irabazlea. Txahala edo 1.205 euro zituen aukeran eta neska gazteak dirua aukeratu zuen. Zorionak!



Mausitxako Gaztak Irabazi du Ordiziako Gazta Lehiaketa



Duela bi urte bezalaxe, Mausitxa baserriko gaztak irabazi du Ordiziako XXIV. Latxa Ardi Gazta Lehiaketa. Hauxe da gazta lehiaketaren artean garrantzitsuenak Euskal Herrian eta elgoibartarrek bigarren aldiz lortu dute lehenengo saria. Lehiaketaren ondorenean egiten den ohiko enkantean, 6.400 eurotan (iaz baino 200 euro gehiago) saldu zen Arriaga auzoko Mausitxa baserrian egindako gazta erdia. Donostiako Divinus Catering-eko Joakin Arratibelek ordaindu zuen dirutza hori hurrengo egunean zeukatzen ezkontzan banatzeko.

Inkesta

Elgoibartarren %43,6k egiten dute euskaraz herriko kaleetan.

Erabiltzen al duzu euskara zure eguneroko bizimoduan?

MARTA DUQUE

Etxekoandrea

35 urte



“Bai, umeein batez ere. Bestela lotsa ematen dit, ez dut oso ondo egiten euskaraz eta erderarako joera handiagoa daukat. Konfiantzazko lagunekin saiatzen naiz egiten.”

M^a ANJELES LOPEZ

Etxekoandrea

65 urte



“Ez, tamalez ez dut euskaraz hitz egiten ikasi eta nire adinean oso zaila da. Cuencakoa naiz eta denbora asko pasatzen dut han. Nire semeak badaki euskaraz.”

ZURIÑE KONDE

Ikaslea

12 urte



“Bai, etxean euskaraz hitz egiten dut familiakoekin, baina lagunartean erderaz. Eskolan euskaraz ikasten dugu gehiena, baina kalean ez dugu erabiltzen.”

SONIA GARCIA

Kamareroa

36 urte



“Ez. Euskara ulertzen dut, baina ez daukat hitz egiteko gaitasunik. Nire bikotea euskalduna da eta gure umea jaio-tzen denean euskaraz egingo diogu.”

[BAI ala EZ?]

Datorren asterako....

Irailaren 20an hasiko da Donostiako zine jaialdia.
Ba al daukazu Zinemaldira joateko ohiturarik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu
Gabi jatetxean.
Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

JAIOAKOAK



**Iker Aranburu
Arrizabalaga**
[Uztailak 9]
Juan Ramon eta
Maria



**Mara
Castañares
Txinbilla**
[Uztailak 12]
Igor eta Eva



**Pello Elizburu
Azpiazu**
[Uztailak 18]
Ion eta Bidatz



**Maria
Gurrutxaga
Perez**
[Uztailak 20]
Anjel eta Rakel



**Intza
Kanalaetxebarria
Ondarra**
[Uztailak 30]
Iker eta Alaitz



**Alex Roldan
Etxegibel**
[Abuztuak 1]
Juan Jose eta
Izaro



**Irune Del Amo
Dacosta**
[Abuztuak 5]
Hugo eta Maider



**Unax Basurto
Gorostiza**
[Abuztuak 23]
Jon eta Nerea

**Alba Borrazas
Rico**
[Uztailak 17]
Angel eta Amparo

**Maite Uranga
Badiola**
[Uztailak 25]
Jose Javier eta
Maria Idoia

**Maialen Alonso
Alvarez**
[Abuztuak 11]
Eduardo eta
Cristina

**Markel Miguel
Isasi**
[Uztailak 26]
Oskar eta Miren

HILDAKOAK

Manoli Mugerza • [89 urte] • Uztailak 1
Jose San Martin • [76 urte] • Uztailak 4
Antonio Fernandez • [62 urte] • Uztailak 8
Kontxa Mugerza • [80 urte] • Uztailak 8
Silvilio Santos • [85 urte] • Uztailak 13
M^a Begoña Arrona • [64 urte] • Uztailak 17
David Comejo • [72 urte] • Uztailak 31
Jesus Gabilondo • [91 urte] • Abuztuak 1
Jose Mari Elorza • [82 urte] • Abuztuak 7
Jose Zubiaurre • [85 urte] • Abuztuak 12
M^a Dolores Etxaniz • [75 urte] • Abuztuak 15
Gregorio Alkorta • [90 urte] • Abuztuak 16

EZKONTZAK

Iker Carrillo eta Leire Gonzalez [Uztailak 14]
Aitor Castañeda eta Aitziber Dominguez [Uztailak 21]
Jon Rodriguez eta Esther Galarraga [Uztailak 28]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jarzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidalie-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

► YEVHEN MEDVID UKRAINA [EUROPA]

«Senideak laga eta herrialde ezezagun batetara joatea ez da erraza»

NATALYA ETA ANDREY SEME TXIKIAREKIN ETORRI ZAIGU YEVHEN BARRENERA. UKRAINAKO HIRUKOTEA DUGU HAU, VINNITSA HERRIALDEKOAK DIRA. DUELA 7 URTE LAGA ZUEN YEVHEN-EK BERE LURRALDEA ETA PORTUGALERA JOAN ZEN. HIRU URTE EGIN ZITUEN BERTAN ETA DUELA LAU IRITSI ZEN ELGOIBARRERA. NATALYA APURTZO BAT GEROAGO ETORRI ZEN ETA ANDREY TXIKIA DUELA URTE ETA ERDI JAIO ZEN. LORTUTAKO DIRUA BANATZERA.



► Zergatik erabaki zenuen Ukrainiatik ateratzea?

Unibertsitate ikasketak amaitu ondoren erabaki nuen Ukrainatik joatea. Ingeniaritza informatikoa egin nuen, baina ez nuen lanik aurkitzen. Lan gutxi dago gu bizi garen herrialdean eta gainera, oso gutxi ordaintzen dute, soldatak oso txikiak dira hemengoan aldean. Etxebizitzak oso garesti daude eta banketxeek zailtasun handiak jartzen dituzte kredituak emateko. Duela zazpi urte ez zuten hipotekarik ematen. Tabakoa eta bonboiak merkeagoak dira, baina gainontzekoa hemengo antzera ordaindu behar izaten da. Oro har Ukrainiako bizimodua oso garestia da.

► Gogorra izan al zen erabakia?

Bai, ez da erraza. Senideak utzi eta herrialde ezezagun batera joateak beldurra ematen du, baina ez neukan beste aukerarik. Portugalera joan nintzen. Hiru urte egin nituen bertan, baina ez zitzaidan gustatu. Euskal Herrira duela lau urte iritsi nintzen eta oso gustura nago hemen.

«Biarritzeko eliza ortodoxo batean ezkondu ginen»

► Nola hartu zaituzte Elgoibarren?

Oso ondo hartu gaituzte. Azpeitian bizi izan nintzen lehenengo. Bertako enpresa batean egiten nuen lan eta itxi zenean Elgoibarrera etoni nintzen. Programatzaile lana egiten dut orain hemengo enpresa batean. Irtsi eta berehala egin genituen lagunak, gure koadrila daukagu eta asteburuetan eurekin ateratzen gara. Umea eduki aurretik juergak ere egiten genituen! Hemengo jendea oso irekia da, Portugalen jende oso lehorra topatu nuen. Ukrainako beste familia batzuk ere bizi dira hemen, baina ez dira asko.



► **Nola izaten duzue Ukrainiako senideekin harremana?**

Udako oporretan bertan egon gara gurasoak bisitatzen. Bestalde, nire emaztearen ama urtebetez egon zen hemen bizitzen umea jaio zenean. Nire anaia eta emaztearen ahizpa Portugalen bizi dira eta haiekin ere elkartzen gara noizean behin.

► **Nola moldatzen zarete hizkuntzarekin?**

Etxean ukrainieraz hitz egiten dugu eta kalean gaztelerez. Portugalen egon nintzenean portugesa ikasi nuen eta gaztelarekin antz handia dauka. Gure semeak momentuz ez du gaztelera ulertzen. Datoren urtean haurtzaindegira eramango dugu eta han euskaraz ikasiko du. Ea gero guri erakusten digun! Euskarak eta errusierak badituzte hizki batzuk komunean, eta hitz batzuen soinua antzekoa da. Gustatuko litzaiguke ikastea, momentuz hitz gutxi batzuk ulertzen ditugu, baina apenas.

► **Erlijioari dagokionean ortodoxoak zarete. Izan al duzue zailtasunik hemengo elizarekin?**

Ez. Egia esan ez gara oso erlijiosoak, gure familiak ere, ez dira meztalara asko joaten. Biarritzen dago eliza ortodoxo bat eta bertan ezkondu ginen. Berrogei lagun inguru bildu ginen gure ezkontza egunean. Umea ere bertan bataiatu genuen. Urtean pare bat aldiz joaten gara elizara.

► **Gustuko al duzue Euskal Herria?**

Bai, izugarri gustatzen zaigu. Jatekoa oso ona da, ingurunea liluragarria, hemengo mendiak eta paisaiak izugarri gustatzen zaizkigu, baina batez ere jendea.

Euskaldunak oso jatorrak zarete, beti laguntzeko prest, irrifartsu, alai. Elgoibar inguruko herriak ere ezagutu ditugu eta Donostia oso polita da.

► **Etorkizunera begira zein da zuen asmoa?**

Gure asmoa hemen bizitzea da. Ukrainatik atera nintzenean, dirua irabazi eta berriz bueltatzeko asmoa nuen, baina orain Elgoibarren geratzea da gure nahia. Umea apur bat hazten denean, emaztea lan bila hasiko da. Etxea erosi dugu, lagunak dauzkagu eta gustura bizi gara hemen. Murtzian ere lagunak ditugu eta hara joateko esan digute behin baino gehiagotan, etxebizitzak merkeagoak direla eta lan gehiago dagoela, baina ez dugu joan nahi, Euskal Herrian oso ondo hartu gaituzte eta momentuz behintzat, hemen geldituko gara.



UKRAINA

- **Hiriburua:** Kiev
- **Azalera:** 603,700 km²
- **Biztanleria:** 45.509.182
- **Dentsitatea:** 75 biz/km²
- **Bizi itxaropena:** 66 urte
- **Erlijioa:** Katoliko ortodoxoak
- **Gobernua:** Errepublikak
- **Langabezia:** %9



Semearen bataioan Biarritzen ateratako argazkia.

2007-2008 IKASTURTEA HASI DA

DBHra arteko mailetako matrikulazioak gora egin du

Guztira 1.253 ikasle matrikulatu dira Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, hasi berri den 2007-08 ikasturte honetan. Guztira, iaz baino berrogeita hamar ikasle gehiago.

Azken urteotako joera errepikatu egin da aurten ere: Ikastolak dauka ikasle kopuru handiena eta bera hazi da gehien (41 ikasle gehiago); Herri Eskola eta Institutuan 22 matrikula gehiago izan dira eta Pilar ikastetxeak apur bat behera egin du (13 ikasle gutxiago).

Jaiotzen gorakadak eragin du matrikulen igoeran. Era horretan, Herri Eskola txiki gelditu denez, ikastetxea handitzeko eskatu dio Jaurlaritzari. Lan hori burutzea zaila bada ere, momentuz Jaurlaritzak Pilar ikastetxeko lau ikasgela hartu ditu errentan, Herri Eskolako klaseak han emateko eta aurtengo eskariari aurre egiteko.

Bestalde, Ikastolak Batxilergoa eskainiko du aurten. Guztira, 17 ikaslek eman dute izena. Institutuak, berriz, iazko kopuruari eustea lortu du, joan den urtean baino ikasle bat gutxiago baitu (221 ikasle).

	Elgoibar Ikastola	Herri Eskola/Institutua	Pilar Ikastetxea
HAUR HEZKUNTZA			
2 urte	65	33	-
3 urte	66	54	-
4 urte	36	35	-
5 urte	58	38	7
1. HEZKUNTZA			
1. maila	49	34	-
2. maila	50	43	3
3. maila	29	52	3
4. maila	48	35	11
5. maila	49	22	7
6. maila	30	33	17
2. HEZKUNTZA			
DBH 1	38	44	13
DBH 2	31	37	19
DBH 3	35	26	20
DBH 4	29	33	21
GUZTIRA	613	519	121



PAGOA
LORADENDA & LORAZAINTZA

943 740 189 688 631 307
ORDUTEGIA: 9:00 - 13:00
NAFARROA PLAZA, 1
MERKATUA - ELGOIBAR

- Lore-diseinua
- Eskorizak
- Bebarriuen, bulagorren, koristegien, terrazzen... diseinu eta mantentzea

Teleordainketa eta etxez-etxeko banaketa



karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49




**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

MUGIKORTASUN ASTEA DEBABARRENEAN: IRAILAREN 16TIK 22RA

Debegesako Garapen Iraunkorrerako Sailak, eskualdeko udalekin batera, Mugikortasun Astea antolatu du hilaren 16-22ko astean. Bosgarren urtez jarraian datorren ekimena dugu hau eta Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearen barnean ospatzen da gure eskualdean, "Kaleak Guztiarentzat" lemapean. Oro har, herritarrak mugikortasun iraunkorraren inguruan kontzientziaztea du helburu egitasmoak. Hala, aurreko urteetan izan duen arrakasta ikusita, ekintzaz bete-betea dator aurtengo egitaraua.

Gidatzeko Era Eraginkor eta Ekonomikorako Ikastaroa

Mugikortasun Asteko egitarauaren atal garrantzitsuetako bat dugu Gidatzeko Era Eraginkor eta Ekonomikorako Ikastaroa. Finean, gidatze eraginkorraren aldeko abantailak sustatzea du helburu ikastarok; esaterako, gidatzeko era egoki batek %20 aurrezten du gasolina kontsumoa nahiz CO₂ isuria.

Gauzak hala, eskualdeko herri guztietan egingo dute ikastaroa eta hamabost pertsonako taldeak osatuko dira; lau ordukoa izango da ikastaroa. Gainera, erabat doakoa izango da izen-ematea. Halere, behin izen-eman eta abisatu gabe saioetara agertzen ez denak bere gain hartu beharko du gastua, ehun eurokoa (BEZ aparte), hain zuzen ere. Parte hartu nahi dutenek urriaren 9a baino lehen Debegesara deitu beharko dute, 943-820110 zenbakira, eta lgorrengatik galdetu.

Elgoibaren urriaren 7an, asteazkena, egingo dute ikastaroa Kultur Etxean, 17:00etatik 21:00etara. Aukera hori aprobetxatzeko heritarrei deitzen die Debegesak.

Bizikletak konpontzeko tailerrak

Horrekin batera, eskualdeko ikastetxeetan bizikletak konpontzeko tailerrak antolatu dira aste horretarako. Tailer horiekin mugikortasun eraginkorraren inguruko kontzientzia txikiaren artean errotzea lortu nahi dute antolatzaileek.

Irrati-saioak

16tik 22rako aste osoan zehar irrati-saioak landuko dira SER irratian, egunero eguerdiko 12:30etik aurrera. Hainbat pertsona izango dira irratsaioetan parte-hartzaile: Debegesako Garapen Iraunkorrerako Saileko arduraduna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Garapen Iraunkorrerako Sailetako ordezkariak, EVEko ordezkaria, herritarrak eta beste asko. Landuko diren gaiak ere gisa askotakoak izango dira: "Txartel Bakarra", Debabarrenako proiektuak, bidegoriak, garraio publikoa eta gidatzeko era eraginkorra, besteak beste.

"Txartel Bakarra"

Mugikortasun Astea baliatze aldera "Txartel Bakarra"-ren erabilera bultzatu nahi du Debegesak. Gipuzkoako Foru Aldundiak abuztuan jarri zuen abian txartel hori Debabarrenean. Egitasmoaren helburua garraio publikoari eupada ematea da eta, hala, txartel honekin garraio publikoa erabiltzeko deskontuez baliatu ahalko dute herritarrak.

Honen harira, eta garraio publikoa sustatze aldera, Mugikortasun Astean zehar garraio publikoaren ordutegiak banatuko dira herri guztietan.

"Autoan Elkarrekin" ekimena

Debegesak eskualde mailan sortutako "Autoan Elkarrekin" ekimena urtebete be-

tetzera doan honetan, eta izan duen harri onari jarraiki, egitasmoaren helburuak finkatzea dute orain helburu. Lanera nahiz ikastetxera autoa partekatuz joateko erraztasunak ematera datorren egitasmoa da "Autoan Elkarrekin". Hala, partaideak aurkitzeko www.debegesa.com/compartir/org orrira jo besterik ez dute nahi dutenek.

Esan bezala, bestalde, ekimenak harri ona izan du pasa den abenduan abian jarri zenetik. Maiatza arteko datuei erreparatuz, Debegesaren web-guneko "Kotxean Elkarrekin" atalak 2.449 bisita izan zituen eta lehen sei hilabete horietan 74 erabiltzailek eman dute izena. Herritarren beharrei erantzutera datorren ekimena dela frogatzen dute, beraz, datuok.

Bloga

"Kotxean Elkarrekin" ekimenaren inguruan eta garapen iraunkorari buruzko beste hainbat gairen gainean jarduteko bloga sortuko du Debegesak, Mugikortasun Astea aprobetxatuz. Blogaren xedea da herritarrak garapen iraunkorraren inguruko gaietan parte hartzea eta hutsetik ez haste aldera, 4 atalen inguruan hasiko da eztabaida: mugikortasuna, energia, enpresak eta ingurumena eta Deba Ibaia.

Blogari Mugikortasun Astean, hilaren 16tik 22ra, emango zaio hasiera eta www.debegesa.com atariko Garapen Iraunkorreko atalean bistaraziko dute.

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Garapen Iraunkorrerako Departamentua
Departamento para el Desarrollo Sostenible



SAN BARTOLOMEEN BALANTZEA

Jaiak arrakastatsuak izan direla nabarmendu du Udalak

San Bartolome jaietako ajea pasatuta, Udaleko Kultura Sailak jaien balorazioa kaleratu du. Jaiak arrakastatsuak izan direla azpimarratu du.

Udalaren arabera, "ofizialagoak diren ekintzetan, hau da, hilaren 23an eta 24an antolatutakoetan, harrera ezin hobea izan da eta dena bata bestearen jarraian etenik gabe joan da; nahiz eta hilaren 23 eta 24an euria egin".

Betagarri, Golden Appen Quartet eta Reincidentes taldeen kontzertuak izan dira jendetsuenak. Mautitxa Txarangaren eta Benta Zaharreko Mutiko Alaien musikak jarritako giroa nabarmendu du Udalak.

Sokamuturra eta enbolatutan min hartutakoak egon dira, baina ez da zauri larririk izan. Errekortadoreen saioa jendetsua izan denez, aurrerantzean erakustaldiarekin segitzeko animatuta dago Udalak.

Beste aurrerapen bat: "Hurrengo urte-etarako kart erakustaldia edo lehiaketa bultzatuko du Udalak", gazte eguneko arrakastaren ondorioz. Ehunka lagunek jardun zuten goitibeheri begira.

Aurtengo Txiki Egunean dorre eta saltoak ikusgarriak izan dira. Kontzu ibiltzeko deia egin du Udalak. "Horiek dakarten arriskuaz hausnarketa eskatu nahi genuke, gauza larriren bat gertatu aurretik neurriak har daitezten".

Aipamen berezia Baseritarren Eguna-erantzat izan da. "Euria izan arren, ekintza guztiak arrakastatsuak izan dira; antolaketak ere ona izan da, eta jendetza, izugarria".

Umeentzako tailerrak eta erraldoi eta buruhandiek harrera ona izan dute, beste ekintzek bezalaxe. Horietan espero baino ume gehiagok parte hartu dute. Horrez gain, "Jende askok barrakak herrian bertan jartzeagatik zoriondu du Udala", dio.

Udalak elgoibartarren laguntza eta partaidetza eskertu ditu. "Horiek dira jaien oinarri nagusienak". Antolatzaileei eta "dena ezbeharrik gabe eta ondo joan dadin ahalegina egin duzuenoi" ere eskerrak eman dizkie. "Bide batez, jaien inguruko edozein proposamen jasotzeko gure ateka irekita dituzuela esan nahi dizuegu".



Malako Jai Batzordea ere, pozik

"Urtetik urtera herritarren parte-hartzea hobera doa". Malako Jai Batzordearen balorazioa ere ezin hobea da. Parte-hartze aktiboa ona izan dela uste dute, hainbat lagun izan delako antolaketan eta ekitaldietan parte hartzen.

Horrez gain, txosnetara edota ekitaldiak ikustera hurbildu den jende kopurua nabarmenezkoa izan da. "Txosnetan oso giro ona egon zen, nahiz eta lehenengo asteburuan euria egin". Bi zapatuak jendez ondo egon dira.

Gazteen egunean sortutako giroa azpimarratu nahi du Malako Jai Batzordeak. Tortilla txapelketa, herri bazkaria, ginkana eta karaokea izan ziren. "Oso giro polita egon zen. Ez genuen pentsa-

tzen hainbeste jende animatuko zenik", adierazi du Malako Jai Batzordeak.

Urtero bezala, Txiki Eguneko erromeriak oso ondo funtzionatu du, antolatzaileen iritziz. "Elgoibarko jendeak dantza egiten duen egun bakarra da ia. Normalean txosnetan ibiltzen ez den jendea ere inguratu egiten da".

Urtetik urtera jendearen erantzuna hobera egiten ari dela uste dute Jai Batzordekoek, baina ez dute bakarrik San Bartolomeetara mugatu nahi. "Urtean zehar gauza batzuk egin nahi ditugu, ez bakarrik jaietan. Ikusiko da aurrerantzean zer egin". Planak ez zaizkie falta. Aurtengo Gabon Zahar ferian ere taloekin segitzeko asmoa dutela adierazi dute.



Jose Zubiaurre "Balle" Udal Musika bandako zuzendari ohia hil da

Abuztuaren 12an eta 85 urte zituela esan zigun agur Jose Zubiaurre Leiaristik. Ballegoixi baserikoa zuen aita eta, horregatik, Balle esaten zioten herrian. Gizon ezaguna eta ospetsua izan zen, musika alorrean, batez ere. 1936. urteko uztailaren 1ean sartu zen Udal Musika Bandan. Bonbardinoa jotzen zuen, Inazio Bereziartuaren zuzendaritzapean. 1956an berak hartu zuen Bandaren ardurua, eta zuzendari lanetan aritu zen 1983ra arte. Urte gogorak tokatu zitzaizkion eta Frankismo garaian gorabehera handiak gainditu behar izan zituen, baina esan digutenez beti aurrera egiten zuen.



katedratikoa zen Jose de Azpiazu, besteak beste. Antzerkia ere gustuko zuen. "El Caserío" edo "Los Claveles" zarzuela ezagunetan bera izan zen aktore nagusia. Ikusten denez, ez zen geldirik egoteko gizona eta 1981ean omenaldia egin zioten Odeon Antzokian. Datorren irailaren 23an Musika Bandak eskainiko duen konzertuan ere Balle gogoratuko dute.

1981ean omenaldia

Musika zainetan zeraman Ballek. Gitarra klasikoan ere artista zen. Irakasle bikainak izan zituen: Inazio Bereziartua, Aita Madina eta Ginebrako Kontserbatorioko

Gurasoentzako euskara ikastaroak

Herriko ikastetxeekin eta euskaltegiekin elkarlanean, gurasoentzako euskara ikastaroak eskainiko ditu aurtenera Udaleko Euskara Batzordeak. Euskalduntzeko, hobeto eta errazago hitz egiteko, idazteko eta irakurtzen ikasteko eskolak eskainiko dira. Ikastaroak urritik ekainera arte luzatuko dira. Izena eman edo informazio gehiago jasotzeko herriko euskaltegietara jo daiteke: Udal Euskaltegira (943742731) edo AEK euskaltegira (943741332).

Mauxitxa Txarangaren webgunea

Mauxitxa Txarangaren webgunea www.mauxitxa.net helbidean jami dute. Bertan, txarangari lotutako informazio interesgarria azaltzen da: historia, partaideak (oraingoak eta betikoak), argazkiak, abestiak eta ordenagailuarentzako hondoak, besteak beste. Aurrera begira, abesti eta bideo gehiago sartzeko asmoa daukatela esan digute. Antton Alberdi arduratu da diseinu eta edukiaz.

Donostiako zinemaldiari buruzko zikloa eskainiko du Ongarri Zine Klubak



- **"Mi hijo"**, (Martial Fougeron)
Filme onenaren Urrezko Maskorra 2006an. (Irailak 20, 22:15ean)
- **"Bajo las estrellas"**, (Felix Viscarret).
(Irailak 21, 22:15ean; 22an 19:30ean; 23an 22:15ean).
- **"La suerte de Emma"**, Sven Taddicken
Zuzendari berriak saila. (Irailak 22, 22:15ean; 23an 19:30ean; 24an 21:30ean).
- **"El jefe de todo esto"**, Lars Von Triers.
Sail ofiziala. (Irailak 25 eta 27, 22:15ean)
- **"Delirious"**, Tom DiCillo
Urrezko maskorra zuzendari eta gidoi onena. (irailak 26 eta 28, 22:15ean)

Irailaren 20tik 29ra bitartean Donostiako Zinemaldiari buruzko filmak ikusteko aukera izango dugu Herriko Antzokian, Ongarri Zine Klubaren eskutik. Azpimarratzekoak dira "Mi hijo" eta "La suerte de Emma" pelikula estreinatu berriak. Bestalde "Bajo las estrellas" pelikula Lizarran filmatuta dago eta Malagako zinemaldian sari nagusi guztiak eskuratu zituen.

Kiribilka programa

Kiribil barraskilo erraldoiari ere bukatu zaizkio oporrak. Elgoibarko Izarraren Kiribilka programa gaur arratsaldean hasiko da. 17:30etik aurrera Plaza Handian izango dira Kiribil eta bere lagunak, ohiko abesti eta jolasekin. Bi urtetik seira bitarteko haur eta gurasoentzako programa da Kiribilka. Egitasmo honen baitan, Sebastopoleko Titiriteroen emanaldia izango dugu barixakuan, irailaren 21ean, arratsaldeko 17:30ean Plaza Handian. Aurtengo ikasturtea urriaren 5ean amaituko da.

Eskuz Elkartea

Eskuz Elkartea antolatuta, altxariak berritu eta birziklatzeko ikastaroak hasiko dira urriaren 2an. Astearte eta ostegunetan eskainiko dira eskolak, 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak 943740801 (Mertxe) telefonoan eskuratu dezakete informazio gehiago.

UNAI ARRIETA ARRATEKO ESKUBALOI JOKALARIA

«Kirolak dauzkan alde onak eta txarrak ezagutu ditut Bidasoarekin»



Kirolaren aurpegirik gogorrenetarikoa ezagutu zuen Unai Arrietak Bidaso-Irun taldearekin eta orain ilusioa berreskuratzen ari da Arraten. Talde polita daukate eta gauzak ondo joanez gero, European jokatzeko aukera izan dezakete. Hala ere, lehenengo lana mailari eustea dela aitortu digu.

▶ **Arraterekin egingo duzu denboraldia. Nola ikusten duzu taldea?**

Ondo, talde polita daukagu. Iaz Europako ateetan gelditu zen taldea, euren historiako posturik onena lortuz. Atzeritar asko daude eta denbora behar dute egokitzeke, baina denboraldi polita egingo dugulakoan nago.

▶ **Zein da zuen helburua?**

Iazkoa ikusiz, European jokatzeko ilusioa dauka taldeak. Baina esperientziak erakutsi dit pausoz pauso joan behar dela, partiduz-partidu. Liga hasiera oso gogorra daukagu eta despistatzen bagara, gero buelta ematea ez da erraza. Nire ustez, lehenengo lana mailari eustea da, eta hortik aurrera ahal den guztia lortzea.

▶ **Bidasoarekin maila galdu zenuteniaz. Nola bizi izan zenuen?**

Kirolak daukan alderik txarrena da, oso gogorra izan zen, baina esperientzia horrek ere gauzak erakusten dizkizu. Nik adibidez egoera gogorretan aurrera egin behar dela ikasi dut, borrokatzen erakutsi dit. Hemen ezin zara despistatu, liga oso kompetitiboa da. Urte oso txarra izan zen. Hasieratik zuloan sartu ginen eta ezin izan genuen hortik atera; gure eskutan egon zen baina ez genuen ahalmenik eduki, gauzak ez zitzaizkigun ateratzen. Zuntz haustura bat ere izan nuen eta ez nengoen nire gorputzarekin gustura. Eskubaloiarekin berriro gozatzea nahi dut, hori baita garrantzitsuen.

▶ **Arratek Asobal Ligan jarraitzeko aukera eman dizu...**

Bai, oso gustura etorri naiz Eibarre-ra. Hasieran Irunen jarraitzeko asmoa neukan, maila galdu arren, baina taldea ekonomikoki ere hondoa jota zegoen eta ez genuen aukerarik izan. Ilusioz etorri naiz Eibarrera, etxean bezain ondo hartu naute Arraten.

▶ **Eskubaloian jokatzen hasi zinenetik talde desberdinak ezagutu dituzu...**

Bai, Asobal mailan 9 urte daramatzat. Leku bakoitzak berea erakusten dizu. Elgoibarren hasi nintzen, gero jubeniletan Arraten aritu nintzen, pausu garrantzitsua izan zen. Irunera joan nintzen ondoren, baina ez nuen asko jokatu, gaztea nintzen eta zaila zen taldean sartzea, eskubaloia alderik profesionala ezagutu nuen. Kanarietan beste 2 denboraldi egin nituen Galdarren. Minutu asko jokatu nituen eta izugarri disfrutatu nuen. Presio handirik gabeko taldea zen. Bidasoako 2. etapa kirol arloan inportanteena izan da, gauza onak eta txarrak ezagutu ditut.

▶ **Jarraitzen al duzu Elgoibarko eskubaloia?**

Bai, pena izan da Senior Mailako mutilen taldearekin gertatu dena. Elgoibarren eskubaloiak badauka tirada eta jende asko dago jokatzeko prest. Nik us-te dut jende horri aukera eman behar zaiola. Ez dakit zer gertatu den talderik ez sortzeko, baina pena handia izan da.

«Ilusioz etorri naiz Eibarrera, etxean bezain ondo hartu naute Arraten»

AUTO LASTERKETA

Rallysprint-ek San Migel bailaran 3.000 ikusle inguru bildu zituen

San Migeleko Rallysprint-en 5. edizioa jokatu zen joan zen zapatuan, Hammaika eskuderiak eta Etxebarriko gazteek antolatuta. 66 autok hartu zuten parte guztira. Horien artean hiru, elgoibartarrak: Jesus De la Fuente, Anjel Maria Irusta eta Aitor Dorado kopilotoa. Arratsaldeko 17:00etan hasi zen lasterketa eta hiru proba burutu ondoren, Xabier Lujua izan zen bizkorrena, Skoda Octavia WRC autoarekin.

Elgoibarko gidariei dagokienean, Jesus De La Fuente eta Anjel Maria Irusta euren kategoriako 4. postuan sailkatu ziren, Peugeot 205 Rallye autoarekin. Aitor Dorado kopilotoak, bestalde, ez zuen suerte handirik izan eta Jon Imanol San Jose pilotoarekin batera, lehenengo proba amaitu zenean laga zuen lasterketa, Skoda Octavia WRC autoarekin.



3.000 ikusle

Antza denez, Euskal Herrian badaude auto zaletuak. Antolatzaileen esanetan, 3.000 lagun inguru hurbildu ziren lasterketa ikustera.

Ikastaro berriak Olaizaga kiroldegian

Ikasturte berriaren hasierarekin, Olaizaga kiroldegiak ikastaroen eskaintza handitu du: Pilates ikastaroetan hiru ordutegi berri dauzkagu, body-pump eta spinning ikastaroetan bestalde, bi talde berri sortu dira eta helduentzako batuka ikastaroa ere martxan jari dute. Horrekin batera, umeentzako aerobic ikastaroak emango dira eta gazteentzako batuka eta spinning. Izena emateko eta informazioa lortzeko 943744115 telefonora deitu. Bestalde, jaioberrientzako igeriketa ikastaroak hilaren 22an hasiko dira.

San Donatora Morkaiko Mendizale Elkartearekin

Irailaren 22an ekingo dio Morkaiko kurtso berriari. Oraingoan Nafarroa aldera joango dira; Erroz eta San Donato inguruetara. Zazpi orduko ibilaldia izango da guxi gora behera. Interesatuek Morkaiko Errosario kalean duen lokalean eman dezakete izena, astelehenean 19:00etatik 20:00etara. Bazkideek zazpi euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek, 10 euro.

Mintxeta Atletismo Taldearen entrenamentuak

Udako oporrak bukatu dira korrikalariarentzat ere. Atletismo denboraldia hastear dago Mintxeta taldearentzat. Datorren astelehenean, hilak 17, Mintxetan dute hitzordua korrika zaletuek. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da saioa. Atletismoan parte hartzeko interesa duten guztiak bertaratu daitezke.

Elgoibartarrak Getaria-Zarautz igeriketa proban



Elgoibarko igeri zaletu batzuk Getaria-Zarautz trabesian hartu zuten parte. Hona hemen euren denborak:

Izena	Denbora
David Soto	48.03
Amaia Revert	51.55
Jose Angel Agirre	58.59
Andres Alberdi	1.01.32
Itziar Elustondo	1.01.41
Ines Segura	1.01.53
Juanjo Etxebarria	1.05.42
Ion Revert	1.06.12
Lidia Bacaicoa	1.07.30
Joseba Konde	1.20.45



KOMERTZIAL TEKNIKOA BEHAR DA MAKINA ERREMINTA SEKTOREAN

- Gutxieneko formazioa, 3. graduako zikloa.
- Ingelesa kontutan hartuko da.

Hautagaiaren araberako baldintzak eta soldatak. Idatzi ondorengo helbidera: info@murrplastik.es



- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukalea, jangela eta komuna. Eguzkitsua. Berritua.
☎ **680707639**

▶ Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalea berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Fatxada eta igogailua berritua.
☎ **628115677**

▶ Etxea salgai Santa Klaran. 3 logela, egongela, bainugela, sukalea handia, ganbara. Dena kanpora.
☎ **617689348**

ALOKAIRUA

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ **671405061/943530243**

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ **699637269**

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ **943531288**

▶ Etxea alokatu edo norbaitekin konpartituko nuke Elgoibarren.
☎ **686907827 (Argitze)**

▶ Logela alokatzen da.
☎ **943741881**

▶ 25 urteko neska batek pisua hartuko luke alokairuan beste pertsona euskaldun batekin konpartitzeko.
☎ **658700164**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Renault Megane 1.600 autoa salgai. 42.000 km, ia 3 urte. Egoera oso onean. ☎ **606675314**

▶ Karabana salgai Mutrikun.
☎ **629415984**

▶ Audi A4 2.5TDI 150 zaldi. Automatikoa. 140.000 km. 1998koa.
☎ **630975501**

[AUTOAK]

▶ Borda egokitu bat erosiko nuke.
☎ **680178636**

▶ Kanping handia salgai.
☎ **943741441**

[BESTELAKOAK]

▶ Garaje marraduna salgai Pista Beltzean.
☎ **943741924/619677797**

▶ Garaje itxia salgai Bernardo Ezenaro kalean.
☎ **615712216**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro.

Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Gizon elgoibartarra edozein lanetarako prest: baserrian, nagusiak zainduz...

☎ **661225149/943531745**

• Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626767586**

• Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka, esperientziarekin. ☎ **650813847**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **652446228**

• Gizona lanerako prest.

☎ **638338816/943531608**

• Emakumea garbiketarako prest. ☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**

• Mutila lanerako prest.

☎ **660441492**

• Neska lanerako prest.

☎ **697431326**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **648603029**

• Gizona elektrizista lanetarako prest. ☎ **606612834**

• Emakumea arratsaldean edo gauetan egiteko prest. ☎ **686578228**

• Emakumea lanerako prest. ☎ **638726007**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **943530132**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **609217705**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **646821678**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **654073995 (Amelia)**

• Emakumea lanerako prest. ☎ **696204053/610632782**

• Emakumea lanerako prest. ☎ **943531608**

• Mutila lanerako prest. Margoetan eta altzariak bamizatzen esperientzia. ☎ **943531608**

• Ostiraletik igandera nagusiak zainduko nituzke eta astean zehar umeak. ☎ **627437279**

• Emakumea garbiketa lanetarako prest. ☎ **649010179**

• 21 urteko neska lanerako prest. Tabernan eta estetizista moduan esperientzia. ☎ **696794107**

ESKAINITZA

• Kamareroa behar da.

☎ **627597222**

• Elgoibarko enpresak proiektista eta delineaiztaile bana behar ditu. Curriculum-a bidali 159 postakutxara. ☎ **943741662**

• Banatzailea behar da, furgoneta enpresaren kontu. ☎ **627597222**

• Londresen bizi den familia euskaldunak au-pair bat behar du umeak zaintzeko.

☎ **667710753 (Nora)**

• Arratsaldetan ume bat zaintzeko pertsona behar da.

☎ **639180184**

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da.

☎ **659399824**

• Bitxiak, barruko erropak eta lurin produktuak saltzeko jendea behar da. Irabazi onak, ez da esperientziarik behar.

☎ **607824892**

• Tabernarako kamareroa behar da. ☎ **943742595**

ABISUAK

• Egunero Azkoititik Elgoibarrera autoz etortzeko prest dagoen norbait behar dut.

☎ **699820820**

• Ihauterietako asteartean, otsailak 20, King-Kong autobus geltoki aurrean izan zen istripuko lekuak behar ditut. Auto batek emakume bat harrapatu zuen.

☎ **670364908/650854917**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen

EUSKARA ERREFORTZUETARAKO LAGUNTZAILEAK behar dira:

- Euskararekin zailtasunak dituzten haurrekin lan egiteko.
- Urritik ekainera bitartean.
- Astean 2-4 ordu (arratsaldean)


Bete beharreko ezaugarriak:

- 18 urte edo gehiago izatea, eta Elgoibartarra edo ingurukoa izatea.
- Euskara maila ona eta komunikazio gaitasuna izatea.
- Haur eta gaztetxoekin lanean esperientzia baloratuko da.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: irailak 21.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen • Ubitarte 4, beheka 20870 ELGOIBAR
Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Nerea) • E-posta: nerea@elgoibarkoizarra.com

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Irati** abuztuaren 7an 2 urte egin zenituelako. Etxekoak. Bereziki, Miriam, Oihane eta Itziar.



▶ Zorionak Berrizko surfeatzaile onenari etxeko guztion partez.



▶ Zorionak **Ainhoa** 6 urteko neska handia zarelako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Nora** abuztuaren 28an 6 urte egin zenituelako. Muxu potoloak etxekoen partez.



▶ Zorionak **Nora Ammendia** abuztuaren 31n 12 urte egin zenituelako. Familia eta Inigoren partez.



▶ Zorionak **Maite** abuztuaren 6an 10 urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Xiker** zure 6. urtebetetzean. Muxu handi bat guraso eta ancia Unax-en partez.



▶ Zorionak **Gorka** abuztuaren 26an 8 urte egin zenituelako. Familiakoak. Aupa potxolo!



▶ Zorionak **Maialen** abuztuaren 26an 3 urte egin zenituelako. Familiakoak, bereziki, Nekane eta Asier.



▶ Zorionak **Ihintza** zure 2. urtebetetzean. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Joseba** uztailearen 29an 7 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Mikell** 11 urte! Segi horrela txapeldun! 100 kilo zorion, bereziki, Oihaneren partez.



▶ Zorionak **Beñat** abuztuaren 15ean 6 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Maialen** hilaren 13an 2 urte egin zenituelako. Aiton-amona, guraso eta osaba-izebak.



▶ Zorionak **Ana** 10 urte egin dituzulako. Oso ondo pasa! Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Maddi** hilaren 13an 3 urte egin zenituelako. Etxekoen, bereziki, Maider eta Inigoren partez.



▶ Zorionak **Irati** abuztuaren 17an 3 urte egin zenituelako. Gurasoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Janire** hilaren 4an 4 urte egin zenituelako. Bereziki, Ion eta Maitaneren partez.



▶ Zorionak **Aitor eta Ion** zuen 2. urtebetetzean. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Ander eta Gorane** 7 eta 5 urte egin dituzuelako. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **German eta Miren** zuen urrezko ezteietan. Marijosusanpeke koadrilakoen partez.



▶ Zorionak **Yaiza eta Yeray** zuen urtebetetze egunetan. Neska-mutil handiak eginda zaude! Muxu handi bat etxekoen partez.



▶ Zorionak **bikotea!** Azkenean iritsi da zuen egun handia. Ondo pasa! Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Saioa eta Irati!** Gurasoen partez.

Zorionak



▶ Zorionak **bikote!** Azkenean iritsi da zuen eguna! Ondo pasa! Koadrilakoen partez.



▶ Zorionak **bikote!** Ez galdu inoiz imbare hori! Ea bihar ondo pasatzen dugun. Neska edo mutila den kontuari buruzko afaria zain daukagu!



▶ Zorionak **Maria eta Ion!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Familiakoen eta Maya loretxoen partez.



▶ Zorionak **Danel eta Lara** abuztuan 7 eta 4 urte egin zenituztelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Nekane** igandean zure eguna delako. Familiakoen partez.

▶ Zorionak amama **Lolitari** etxekoan partez.

▶ Zorionak **ama eta Amaia** hilaren 15ean urtek egingo dituzuelako. Ondo pasa eguna! Inakiren partez.

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



16 igandea IBARRENA



[FARMAZIAK]

14 **GUARDIA** 24 ORDUZ
Etxeberria (*Errosario*)
15 Fernandez

16 Fernandez
17 Bidasolo
18 Etxeberria (*Santa Ana*)
19 Fernandez
20 Yudego
21 Zabaleta

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.*

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Uztaileko irabazlea:

**ISABEL
MURUAMENDIARAZ**

Irailerako saria:

**ESTETIKA
TRATAMENDUA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)

Tel.: 943 74 40 26

[14 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Bi urtetik seira bitarteko haurrentzako saioa. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

[16 DOMEKIA]

9:00 DEBABARRENEAN ZEHAR IRTEERA

Deba ibaia ezagutzeko irteera. Mugikortasun astearen baitan. Antolatzailea: Udala eta Debegesa.

[21 BARIXAKUA]

17:30 MUNDUKO IPUIN ETA KONDAIRAK

Sebastopoleko titiriteroen emanaldia, Kiribilka programaren barnean. Herriko Antzokian.

[23 DOMEKIA]

10:00 "BAT EGIN" EGUNERAKO AUTOBUSA

Altsasura joateko autobusa Txankakua zubitik aterako da. Lzen ematea ohiko lekuetan.

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Los Simpson»

14, barixakua: 22:15
15, zapatua: 19:30/22:15
16, domekia: 16:30/19:30/22:15
17, astelehena: 21:30
«Media luna» (Z.K.)
20, eguena: 22:15
«Bajo las estrellas» (Z.K.)
21, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«XXXXXXXXXXXX»

14, barixakua: 19:30-22:15
15, zapatua: 17:00-19:30-22:15
16, domekia: 17:00-19:30-22:15
17, astelehena: 19:30-22:15
18, martitzena: 19:30-22:15
19, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Los Simpson»

Zuzendaria: David Silverman
Marrazki bizidunak.

«The Simpson's» marrazki bizidunen telesail famatuaren oinarritutako pelikula da. Estatu Batuetako familia bitxi honen abenturak laburtzen dituen filma. Homerrek mundua salbatu beharko du, berak egin duen hankasartze baten ondorioz. Marge emaztea haserre dago Homerrek egin duenagatik eta Springfieldeko bizilagunek bere burua nahi dute. Nola edo hala emaztearen eta herritarren barkamena lortzen saiatuko da Homer.

«Mi Hijo» (Z.K.)



Zuzendaria: Martial Fougeron.
Antzezleak: Nathalie Baye, Victor Sevaux.

Julien (Victor Sevaux) nerabezaroan bete-betean dagoen mutil maitekorra da, baina gehiegizko amodioaren kalteak pairatzen ditu. Senarrak ez dio kasu gehiegi egiten Julieneren amari eta horrek semearekin bete nahi ditu beste era bateko gabezia edo hutsuneak. Amak semeak egiten dituen mugimendu guztiak kontrolatzen ditu, azken hau itotzeraino. Neskalagun bat bilatzen saiatuko da Julien amaren itzalpetik ihesi egin nahian.

Atzera hegira



1945. urte inguruko erretratu zahar hau **Lucia Zabalak** laga digu. Lekeition ateratako argazkia dugu. Bertan agertzen diren neska gazte hauek lagunak ziren eta, gaur egun ere, lagunak izaten jarraitzen dute. Erropak josten aritzen ziren eta noizean behin irteerak egiten zituzten. Oraingoan Bizkaiko kostaldera joan ziren egun pasa eta oroimenerako argazkia atera zuten bertan. Gogora ditzagun zein diren neskatila dotore hauek.
Goian, ezkerretik eskumara: **Alicia Marcos eta Rosario Beloki**.
Behean, ezkerretik eskumara: **Maria Luisa Rementería, Lucia Zabala, Begoña Latxa, Pilar Etxabe (t) eta Karmen Garmendia**.



ESKERTZA

2007ko abuztuaren 7an, 82 urte zituela hil zen **Jose Mª Elorza Zubiaurre**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2007ko irailaren 11n hil zen **Carmen Oteiza Salaberri**aren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



MASUMI'S *Moda*

Irekiera promozioa:
%10eko beherapena
Urriaren 31 arte.



Orain, denda berrian
aurkituko gaituzu

Bernardo Ezenarro, 15
ELGOIBAR
(Eroski parean)
Tel.: 943 74 35 83



RENAULT
vehiculos comerciales

Zuk beste sinisten dugu zure negozioan eta lagundu egin nahi zaitugu.

Azken belaunaldiko injezio zuzeneko motor potenteagoak.

Kangoo

Trafic

Master



Autonomo edo enpresaria bazara gure ibilgailu komertzial guztietan:

- **%23ko deskontua*.**
- **Finantziazio baldintza bikainak*.**



* Autonomo eta enpresarietako eskaintza berria 07-09-30 arte. Ezin zitekeen beste promozioei gehitu. Buztan diren modeloak: Kangoo Express Confort, Trafic furgoneta Labarra Normala eta altxarutako Master Furgoneta Erria. Renault ibilgailu komertzialen kategorian: konsumo mistoa (l/100) 5,3tik 8,9ra. CO₂ (aukosta lgr/km) 139tik 235era.

RENAULT
AUTOBERRI

ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUN - TOLOSA



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Ezenarro arotzerixia

Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixillon 2-2. pabiloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibamar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Javi

Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Aramar

Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movlstar.com
www.excavacioneslekunberri.com